



**Gizakia**  
Pertsona bat, etorkizun bat  
Una persona, un futuro

Avda. Madariaga 63, 48014 Bilbao  
Tel.:94 447 10 33 • Fax: 94 447 11 58

www.gizakia.org

## KONPROMISO ADIERAZPENA: EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA

Honen bidez, Gizakia Fundazioak berretsi egin nahi du gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren arloan daukan konpromisoa. Horren haritik, berdintasunerako politika eta estrategien sustapenean egiteko aktiboa hartuko du bere gain lan-baldintza, antolakuntza eta barne-funtzionamenduari dagokionez, baita zerbitzuak emateari dagokionez ere. Erakundearen balioen adierazpenean azaltzen den moduan, Gizakia Fundazioak aukera eta tratu berdintasunerako irizpideak aplikatuko ditu erakundearen maila guztietan, eta pertsona guztion beharrianak kontuan hartuko ditu.

Adierazpen honen bidez, balioa eman nahi diogu erakunde honetan 2003tik berdintasun arloan metatutako esperientziari. 2009an esplizituki formulatu genuen lan hori, Gizakia Fundazioaren Lehenengo Berdintasun Planaren bidez; eta gizon eta emakumeen arteko Berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoak eta gizon eta emakumeen berdintasunerako 4/2005 Euskal Legeak ezarritako lege esparrua hartu genuen erreferentzia moduan.

Jarduera-esparru horrek pertsona hartzen du ardatz eta aitortzen du oraindik ere gure gizartean badaudela diskriminaziozko harreman-ereduak, emakumea desabantaila egoera orokor batean kokatzen dutenak. Errealitate horren aurrekoan, Gizakiak honako konpromisoak hartu ditu:

1. Estrategia eta kudeaketa orokorrean genero ikuspegia mantentzea, benetako berdintasuneranzko bidean aurrera jarraitzeko neurriak identifikatu eta aplikatu ahal izateko –politika orokorraren eta pertsonen politikaren barruko printzipio estrategiko gisa-, bai gure erakundearen barruan, baita lan egiten dugun pertsonakiko arretan ere.
2. Pertsonen kudeaketan gizon eta emakumeen arteko berdintasuna zaintzea; sustapenean, hautaketan, soldaten politikan, prestakuntzan, lan-baldintzetan, laneko osasunean, laneko denboraren antolaketan eta kontziliazioan eta abar, zeharkako diskriminazio egoerak saihesten saiatuz.
3. Lan egiten dugun kolektiboen errealitatea kontuan hartzea eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lantzeko ereduak sustatzea, prestakuntzaren eta sentsibilizazioaren bidez, emakume erabiltzaileak ahaldunduz eta gizonekin kontzientziazio lan espezifikoak eginez.
4. Kanpo zein barne jakinarazpenen bidez, erakundeak ematen duen irudia bat etortzea gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko konpromisoarekin.
5. Gizarte eta kultura arloko erakunde publiko eta pribatuekin lan egitea genero indarkeriaren aurka eta gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alde.

Konpromiso honek esan nahi du pertsonok parte-hartze aktiboa izango dugula hausnarketa prozesuetan eta erakundearen aldaketak ezartzen. Izan ere, erakunde honen funtsa eta indarra pertsonengan dago: Profesionalak, boluntarioak eta programetako erabiltzaileak.



Helburu hau gauzatzea lortzeko, erakundeak estrategia eta kudeaketa prozesuetan jarriko du ikuspegia, Berdintasun Planen bidez eta aldizkako dinamiken bidez, Segurtasun, Osasun eta Berdintasun Batzordearen bidez.

Gizakia, gizon eta emakumeen arteko berdintasunarekin konprometitua.

Bilbo, 2018ko ekainaren 12a



*Ignacio*  
**Gizakia**  
Pertsona bat, etorkizun bat  
Una persona, un futuro

**Ignacio Palacio Areitio**  
Zuzendaria  
GIZAKIA FUNDAZIOA